El gran reto en el que debe trabajar nuestra ciudad es la lucha contra el cambio climático. San Sebastián debe ser un referente en el desarrollo de la economía verde, promoviendo la economía circular y la transformación energética. Las transformaciones que vienen de la mano de la transición ecológica pueden abrir todo un abanico de oportunidades para nuestra ciudad. San Sebastián debe seguir impulsando las energías limpias, la transformación del modelo energético, la movilidad eléctrica y la búsqueda de la eficiencia energética en el ámbito residencial con medidas que contribuyan a la rehabilitación de los edificios construidos.

Azkenik, gastronomia hiriaren nortasuna definitzen duen eta proiekzioa ematen dion ezaugarrietako bat da, mundu osoan aitortua. Nazioarteko talentu gastronomikoa erakartzen duen eta bikaintasun gastronomikoaren helmuga bihurtzen gaituen apustu estrategikoa.

Por último, la gastronomía es una de las señas de identidad y proyección de la ciudad, mundialmente reconocida. Es una apuesta estratégica que logra la atracción internacional del talento gastronómico y nos posiciona como destino de excelencia gastronómica.

Horiek horrela, behean sinatzen duen bozeramaileak EBAZPEN-PROPOSAMEN hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin:

Por todo ello, la portavoz abajo firmante suscribe la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1. Donostiako Udalbatzak berrikuntzaren eragileekin lankidetza publiko-pribatua indartzeko konpromisoa hartzen du gure hiria berrikuntzaren eta ikerketaren abangoardian jartzeko, klima-aldaketaren aurka borrokatzen diren ekonomia zirkular eta berdearen sektoreetan, bai eta zientzia eta teknologia sektoreetan, biozientziak eta osasunaren sektoreetan eta sektore gastronomikoan ere, eta *Donostia City Lab* kontzeptua garatu nahi du, berrikuntzarako aukerak ematen dituen hiri moduan.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a fortalecer la colaboración público-privada con los agentes de la innovación para situar a nuestra ciudad en la vanguardia del talento e investigación en los sectores de economía circular y verde que luchan contra el cambio climático, científico-tecnológico, biociencias-salud, o gastronómico, desarrollando el concepto *Donostia City Lab* como ciudad facilitadora de la innovación.

2. Donostiako Udalbatzak tokiko talentua babesten jarraituko du Donostiako Sustapena elkarteak arlo hauetan egiten

2. Ayuntamiento de San Sebastián seguirá apostando por el talento local con las políticas actuales que se están realizando desde la

dituen politikei eusten: itzulera, atxikipena, talentuaren babesa eta tokiko ikertzaileak.

Donostia, 2021eko urriaren 29a

Marisol Garmendia Beloqui,
PSE-EE udal taldeko bozeramailea".

Sociedad de Fomento de San Sebastián en materia de retorno, retención, apoyo del talento e investigadores locales.

San Sebastián, 29 de octubre de 2021

Marisol Garmendia Beloqui
Portavoz grupo municipal PSE-EE".

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 7– (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 7– (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**6. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

---------------

**7. Ebazpen proposamena, EH BILDU**

**7. Propuesta de resolución presentada por el**

**taldeak aurkeztua, Donostian eraztun berdea ezartzeari buruzkoa.**

“DONOSTIAKO UDALBATZARI:

EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Reyes Carrere Zabala andereak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikuluaren babesean, eta Udalbatzak aztertu behar duen Politika Orokorrari buruzko Urteko Adierazpenari begira, aurkezten du honako Ebazpen Proposamen hau, Donostian eraztun berdea ezartzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Larrialdi Klimatikoa datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatzera etorri da, gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetarikoa baita, benetako zibilizazio erronka bat. Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago geldotasunerako.

2012. urtean Londresen egindako Planet Under Pressure konferentziak lur-sistemaren funtzionamendua arriskuan dagoela ohartarazi zuen. Era berean, Nazio Batuen Erakundearen babespeko nazioarteko biltzar zientifiko horrek munduko iraunkortasunak gizartearen oinarria behar duela izan adierazi zuen. 2015. urteko abenduan Parisen egindako klima-aldaketaren inguruko COP21 biltzar mediatikoak ere arazo global horrek sor ditzakeen eragin itzulezinen larritasuna mahaigaineratu zuen mundu-mailako hedabideen aurrean.

Ingurumen, natura eta klimarekin gertatzen ari dena larria da oso eta erabakiak hartu ezean, ondorioak itzulezinak izango dira planetarentzat eta bertan bizi garen guztiontzat.

**grupo EH BILDU, sobre la implantación del anillo verde en San Sebastián.**

“AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

La portavoz del grupo municipal EH Bildu, Reyes Carrere Zabala, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, y de cara a la Declaración Anual de Política General que se someterá a la consideración del Pleno, presenta la siguiente propuesta de resolución, relativa a la implantación del anillo verde en San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

La emergencia climática ha venido a condicionar la agenda de los próximos años y décadas, ya que constituye una de las principales amenazas para nuestro bienestar, un auténtico reto de civilización. La situación y tendencia mundial y del País Vasco no deja mucho margen para el optimismo, y mucho menos para la lentitud.

La conferencia Planet Under Pressure, celebrada en Londres en 2012, alertó de que el funcionamiento del sistema terrestre está en peligro. Asimismo, esta conferencia científica internacional, auspiciada por la Organización de las Naciones Unidas, señaló que la sostenibilidad mundial debe ser la base de la sociedad. La conferencia mediática sobre cambio climático COP21, celebrada en París en diciembre de 2015, también planteó, ante los medios de comunicación de todo el mundo, la gravedad de los efectos irreversibles que puede ocasionar este problema global.

Lo que está sucediendo con el medio ambiente, con la naturaleza y con el clima es un problema muy grave, y, si no se toman decisiones, sus consecuencias serán irreversibles para el planeta y para las personas que lo habitamos.

Klima Aldaketari buruzko gobernu arteko panelak ere (IPCC) berriki adierazi duenez, tenperaturaren igoera 2ºC azpitik mantentzeko, munduko isurketek % 40 eta % 70 bitartean murriztu beharko lirateke 2050 bitartean, eta erabat ezabatu 2100 bitartean, baina horretarako ez dira behar bezalako neurriak hartzen ari.

El Grupo Intergubernamental sobre el Cambio Climático (IPCC) también ha señalado recientemente que, para mantener la subida de la temperatura por debajo de los 2ºC, las emisiones mundiales deberían reducirse entre un 40 y un 70 % para el año 2050 y eliminarse completamente para el año 2100. Sin embargo, no se están tomando las medidas adecuadas para alcanzar estos objetivos.

Jakina, gure planetan ziklo klimatiko ugari izan da, baina azken urteetako gertakariek agerian utzi dute, batetik, gizakiaren jardueraren ondorio ematen ari den fenomenoa dela eta, bestetik, beronen ondorioak oso larriak izan daitezkeela naturaren, gizakiaren eta oro har espezie askoren biziraupenerako.

Evidentemente, en nuestro planeta ha habido muchos ciclos climáticos, pero los acontecimientos de los últimos años han puesto de manifiesto que, por un lado, es un fenómeno que se está produciendo por la actividad humana y, por otro, que sus consecuencias pueden ser muy graves para la supervivencia de la naturaleza, del ser humano y de muchas especies en general.

Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

El cambio climático, por tanto, lo provocamos principalmente nosotros, y ya estamos notando sus efectos.

Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politiketan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu.

Los informes que publican diversos organismos y grupos de trabajo internacionales señalan, cada vez con más claridad, que, si queremos hacer frente a la situación y no sufrir los efectos más devastadores del cambio climático, es preciso acometer una profunda transformación, una revolución en las políticas climáticas y energéticas y, por tanto, en nuestro día a día.

Larria da egoera eta larritasun horren araberako jarrera eta erabakiak hartu behar dira.

La situación es grave y es necesario adoptar la actitud y las decisiones que corresponden a tal gravedad.

Azaltzen ari garen errealitate gordina ezin da Donostiatik kanpo kokatuta dagoen arazo gisa ezaugarritu, guk ere ardura handia baitugu alor honetan. Klimaren egoeraren gaineko kezka areagotu da gure hirian ere azken aldian.

La cruda realidad que estamos exponiendo no puede considerarse un problema ajeno a San Sebastián, ya que nosotros también tenemos una gran responsabilidad en este ámbito. La preocupación por la situación climática ha aumentado también en nuestra ciudad en los

últimos tiempos.

Azken datuen arabera berotze globalaren ondorioz aldaketak nabarituko ditugu Euskal Herrian. Mende bukaeran tenperatura maximoak 3ºC igoko dira, eta 2040. urtean bero-olatuak, uholdeak eta itsas-ekaitzak ugariagoak izango dira. Horrez gain, itsas-maila 2 mm urtean igotzetik, 10 urtero 3,5-4 cm igotzera pasako da. Hortaz, berehalako neurriak behar ditugu eta klima aldaketaren ondorioen aurrean, lurraldearen zaurgarritasuna murriztu behar dugu.

Según los últimos datos, el calentamiento global provocará cambios en Euskal Herria. A finales de siglo las temperaturas máximas subirán 3ºC, y en 2040 las olas de calor, las inundaciones y las tormentas marítimas serán más frecuentes. Además, el nivel del mar pasará de subir un 2 mm al año a subir un 3,5-4 cm cada 10 años. Por tanto, necesitamos medidas inmediatas y debemos reducir la vulnerabilidad del territorio ante los efectos del cambio climático.

Nazioarteari dagokionez, larrialdi klimatikoari aurre egiteko hainbat neurri proposatu izan ditu Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak. Horietako bat da Ekosistemak Berrezartzeari buruzko Nazio Batuen Hamarkada izendatu izana 2021etik 2030era bitarteko urteak. Nazio Batuen Erakundearen Ingurumen Programa eta Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea buru direla, Nazio Batuen Hamarkada mundu osoko ekosistemen degradazioa prebenitzeko, gelditzeko eta leheneratzeko diseinatuta dago. Garapenaren ondorioz galdutako naturaguneei bizitza itzultzeko bultzada orokorra du oinarri.

En el ámbito internacional, la Asamblea General de Naciones Unidas ha propuesto diversas medidas para hacer frente a la emergencia climática. Una de ellas es la declaración del Decenio de las Naciones Unidas sobre la Restauración de los Ecosistemas 2021-2030. Liderado por el Programa de las Naciones Unidas para el Medio Ambiente (PNUMA) y la Organización de las Naciones Unidas para la Alimentación y la Agricultura (FAO), el Decenio de las Naciones Unidas está diseñado para prevenir, detener y revertir la degradación de los ecosistemas en todo el mundo. Se basa en dar un impulso general para devolver la vida a los espacios naturales perdidos por el desarrollo.

Baina gurean ere, Eusko Jaurlaritzak berriki kaleratutako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planean, hainbat irtenbide proposatzen dira udalerrien erresilentziarako. Horien artean hiri eta hiri-inguruko azpiegitura berde-urdinean udal-ekintza sustatzea. Hau da, naturan oinarritutako irtenbideak proposatzen ditu, udalerriek aldaketa klimatikoarekiko duten erresistentzia handituko dutenak, eta ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-onurak ekarriko dituztenak.

También en nuestro territorio, en el Plan de Transición Energética y Cambio Climático publicado recientemente por el Gobierno Vasco, se proponen diversas soluciones para la resiliencia de los municipios. Entre ellas, impulsar la acción municipal en la infraestructura verde y azul urbana y periurbana. Es decir, propone soluciones basadas en la naturaleza que aumenten la resistencia de los municipios al cambio climático y que aporten beneficios ambientales, sociales y económicos.

Hortaz, Donostian badugu zer egin

Por lo tanto, en San Sebastián tenemos mucho

azpiegitura berdea sortzeko.

Donostia basoz inguratuta egon zen XX. mendea arte. Gure hiriaren hedapenak, eta XX. mendean zehar biztanleria modu progresiboan hazi izanak, higadura piztu eta basa-bizitza uxatu zuen, eta horrek gure inguruko berdeguneak suntsitu zituen.

Kontrolik gabeko hiri-hazkundeak gero eta habitat natural eta nekazaritza-lur emankor gehiago irensten ditu. Beraz, argi dago berdeguneek zeregin garrantzitsua izan behar dutela hiri-plangintzan.

Gure bizi-kalitatean eragin handia duten ekosistemak dira hiriak. Hiriko ekosistema funtzionalek lagundu egiten dute arnasten dugun airea eta kontsumitzen dugun ura garbitzen, uharte termikoaren efektua indargabetzen eta gure ongizatea lortzen, mehatxuetatik babesten, biodibertsitatea mantentzen eta atsedenerako eta aisialdirako aukerak ematen.

Adituek diotenez, eraztun berdeekin, hirietako airea eta ura garbitu, karbonoa xurgatu, bero-boladak mugatu, biodibertsitatea mantendu eta bertakoentzako jolas-aukerak eskaini daitezke.

Eraztuna osatzeak jadanik garatutako lurrak berdetzea ekarriko luke.

Donostiako eraztun berdea hiriaren kanpoaldean diseinatutako eta prestaturiko eremu natural eta erdinaturalez osatutako multzoa litzateke, eta hiriaren erdigunea luzera handi batean inguratuko lukeena. Eraztunak gure hiriko eremu berdeak jaso eta batuko lituzke, hala nola; Ulia, Auditz Akular, Lau Haizeta, Antondegi, Miramon, Belartza, Arratzain,  Mendizorrotz edo Igeldo.

que hacer para crear una infraestructura verde.

San Sebastián estuvo rodeada de bosques hasta el siglo XX. La expansión de nuestra ciudad, y el progresivo crecimiento de la población a lo largo del siglo XX, provocó la erosión y ahuyentó la vida silvestre, destruyendo las zonas verdes de nuestro entorno.

El crecimiento urbano descontrolado devora cada vez más hábitats naturales y tierras agrícolas fértiles. Por tanto, está claro que las zonas verdes deben jugar un papel importante en el planeamiento urbano.

Las ciudades son ecosistemas que afectan notablemente en nuestra calidad de vida. Los ecosistemas funcionales urbanos contribuyen a limpiar el aire que respiramos y el agua que consumimos, a contrarrestar el efecto de isla de calor y a conseguir nuestro bienestar, a protegernos de amenazas, a mantener la biodiversidad y a proporcionar oportunidades de descanso y de ocio.

Según las personas expertas, los anillos verdes permiten limpiar el aire y el agua de las ciudades, absorber el carbono, limitar las olas de calor, mantener la biodiversidad y ofrecer oportunidades de esparcimiento a la ciudadanía.

La formación del anillo supondría el reverdecimiento de las tierras ya desarrolladas.

El anillo verde de San Sebastián es un conjunto de espacios naturales y seminaturales diseñados y preparados a las afueras de la ciudad y que rodearían el centro de la ciudad en una gran longitud. El anillo abarcaría e integraría las zonas verdes de nuestra ciudad, como Ulía, Auditz Akular, Lauaizeta, Antondegi, Miramon, Berarratza, Arratzain, Mendizorrotz e Igeldo.

Donostiako eraztun berde honen helburuak lirateke biodibertsitatea kontserbatzea, lur degradatuak berreskuratzea, hiritarrentzako aisialdi-eremuak eskaintzea, nekazaritza-eremuak babestea, hiriaren hazkundea mugatzea, kutsaduraren ondorioak arintzea eta beste arrisku natural batzuk saihestea.

Eraztun berdea oinarritzat hartuta dimentsio berri bat eman ahal diogu hiriaren inguruko lurraldeari, nekazaritzari lotutako zentzu ekonomiko eta soziala. Erabilera berriak ere proposatu daitezke *gerriko agroekologikoa* sortuz. Gerriko berde produktiboa ekonomia lokala bultzatzeko tresna bezala ulertzen baitugu.

Paisaia-balio handiko espazioak diseinatu nahi dira, baita ondarea eta natura zaindu ere, nekazaritzarekin zeharka lotutako jarduera berriak sustatuz.

Horregatik guztiagatik, EH Bildu udal taldeak honako ebazpen proposamen hau egiten du:

EBAZPEN PROPOSAMENA

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Donostiako eraztun berdea ezartzea, gure hiriaren bizi kalitatea hobetzeko, jasangarritasuna eta erresilentzia sustatzeko eta hiriak pairatuko lituzkeen ingurumen-egoera larriei irtenbidea emateko.

2.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio ondare berdearen plan berezia egitea, gure hiriko naturaguneak, eremu berdeak, zuhaitzak eta lorategiak babesteko etorkizuneko esku-hartzeen aurrean.

Donostian, 2021eko urriaren 29an

Reyes Carrere Zabala

Los objetivos de este anillo verde de San Sebastián serían conservar la biodiversidad, recuperar los suelos degradados, ofrecer áreas de esparcimiento para la ciudadanía, proteger las zonas agrícolas, limitar el crecimiento urbano, mitigar los efectos de la contaminación y evitar otros riesgos naturales.

Tomando como base el anillo verde, podemos dar una nueva dimensión al territorio periurbano, un sentido económico y social ligado a la agricultura. También se pueden proponer nuevos usos creando cinturón agroecológico. Y es que entendemos el cinturón verde productivo como una herramienta para impulsar la economía local.

Se trata de diseñar espacios de alto valor paisajístico, preservando el patrimonio y la naturaleza, promoviendo nuevas actividades transversales a la agricultura.

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a implantar el anillo verde de San Sebastián para mejorar la calidad de vida de nuestra ciudad, promover la sostenibilidad y la resiliencia y dar solución a las graves situaciones ambientales que podría sufrir la ciudad.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a elaborar un plan especial de patrimonio verde para la protección de los espacios naturales, zonas verdes, arbolado y jardines de nuestra ciudad ante futuras intervenciones.

San Sebastián, 29 de octubre de 2021

Reyes Carrere Zabala

EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.

portavoz del grupo municipal EH Bildu”.

**7. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**8. Ebazpen proposamena, EH BILDU taldeak aurkeztua, etxebizitza arazoari buruzkoa.**

“UDALBATZARI

ETXEBIZITZA ARAZOARI BURUZKO EBAZPEN PROPOSAMENA

EH BILDU udal taldearen bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta etxebizitza arazoari buruzko ebazpen proposamen hau aurkeztu du, hiriaren egoerari buruzko urteko osoko bileran eztabaidatu eta onartzeko.

JUSTIFIKAZIOA:

Hiriaren egoeraz ari bagara, inork ezin du zalantzan jarri Donostiak duen arazo larrienetako bat etxebizitzaren prezioaren etengabeko hazkundearen arazoa dela.

Jarrera autokonplazientea hartu eta

**8. Propuesta de resolución presentada por el grupo EH BILDU, sobre la problemática de la vivienda.**

“AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN SOBRE LA PROBLEMÁTICA DE LA VIVIENDA

Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente propuesta de resolución sobre la problemática de la vivienda para su debate y aprobación en el Pleno anual sobre el estado de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN:

Nadie puede dudar, si hablamos sobre el estado de la ciudad, que uno de los problemas más acuciantes que tiene Donostia es el problema del crecimiento constante del precio de la vivienda.

Se podrá argumentar, desde una postura

argudiatu daiteke ez dela arazo berria gure hirian. Egia da, baiezta daiteke, etxebizitza arazoa arazo endemiko bihurtu dela. Baina, baieztapen horrek ez dauka ezkutatzerik benetako arazoa dela, benetako Donostiarena. Eta, benetako arazoa denez, milaka donostiarri erasaten dio, bizi-proiektu ugariri zama handia eransten eta ehunka donostiar kanpora bidaltzen laguntzen; ezin dute beren bizitegi-premientzako irtenbiderik aurkitu Donostian eta gertuxeagoko eta urrutixeagoko beste herri batzuetara alde egin behar izaten dute eta.

autocomplaciente, que no se trata de un problema que resulta novedoso para la ciudad. Es cierto, se podrá afirmar, que el problema de la vivienda se ha convertido es un problema endémico, pero dicha afirmación, no puede servir para ocultar que se trata de un problema real, de una Donostia real. Y que, como problema real que es, afecta a miles de donostiarras, lastra múltiples proyectos de vida, y contribuye a “expulsar” a cientos de donostiarras que, no pudiendo encontrar salida a sus necesidades habitacionales en Donostia, tienen que emigrar a otras poblaciones más o menos cercanas.

Arazo sorra da, alde batera utzi ezin dena hiriaren benetako egoerari buruzko edozein analisi egin nahi bada, gutxieneko objektibotasun batekin behintzat. Izan ere, 2015eko ekainetik hasi eta gaur arte, 70 m2-ko etxebizitza bat alokatzeko prezioa (Idealista atariaren arabera), hilean 798 euro izatetik 1.043 izatera pasa baita; eta 90 m2-ko etxebizitza, berriz, 1.026 izatetik 1.341 izatera (hau da, % 25 inguru garestitu da).

Resulta evidente que se trata de un problema latente del que no se puede abstraer cualquier análisis, minimamente objetivo, sobre el estado real de la ciudad. Y es que, desde junio de 2015 el precio en alquiler de una vivienda de 70 m², según el portal Idealista, ha pasado de una renta mensual de 798 a 1.043, mientras que el de una de 90 m² ha pasado de una renta de 1.026 a una de 1.341 (es decir, se ha encarecido alrededor de un 25 %).

Era berean, funts putreek gutxienez 857 etxebizitza kudeatzeak alokairuaren merkatuan zer ondorio duen ere aipatu dezakegu. Are gehiago Benta Berriko etxebizitza babestuekin dugun burugabekeria kontuan izan da, zeinek eta Blackstone funts putreak kudeatzen baititu, alajaina!, hango etxebizitza babestuak.

Igualmente podríamos hablar de las repercusiones que tiene sobre el mercado de alquiler el hecho de que, al menos, 857 viviendas estén gestionadas por los conocidos como “fondos buitres”. Llegando incluso al despropósito de que es precisamente un “fondo buitre” el que se encarga de gestionar viviendas protegidas como sucede con las viviendas protegidas de Benta Berri con el fondo Blackstone.

Salerosketaren kasuan −datu asko eman eta inor itotzeko asmorik ez dugun arren−, esan dezagun Sustapen Sozietateak berak egindako Hiriaren Ekonomiaren Barometroaren arabera, Donostian salgai dauden etxebizitzen batez besteko prezioa 5.500 euro/m2 dela; eta, hala, 75 m2-ko etxebizitza batek, batez beste 412.500

En el caso de la compraventa y, sin pretender abrumar proporcionando muchos datos, sí señalar que, según el Barómetro de Economía Urbana, elaborado por la propia Sociedad de Fomento, se cuantifica que el precio medio de la vivienda residencial en venta en Donostia es de 5.500 euros/m²; lo que, para una vivienda de 75 m², nos arroja un precio medio de 412.500 euros

euroren prezioa duela, eta 90 m2-ko etxebizitza batek, berriz, 495.000 euro, batez beste.

Azkeneko sei urteotan hartutako udal-politiken ondorioz, Erdialdea eta Gros ere Parte Zaharraren etengabeko eraldatze prozesuan sartuta dira, eta turismora bideratutako gune tematiko bihurtu dira, asko ugaritu baitira hotelak, turismoko aterpetxe eta apartamentuak egiteko edota etxebizitzak turismorako erabiltzeko lizentziak auzo horietan bietan ere. Ez da harritzekoa, beraz, auzo horiek biztanleak galtzea, alokairuko etxebizitza asko urritzea eta bizilagunek inolaz ordaindu ezin duten moduan igotzea haien prezioak.

Izan ere, auzitegiek baliogabetu zuten Erabilera turistikoko etxebizitza ordenantza haren legezkotasunari buruzko hasierako eztabaidak gainditu ondoren, ezinbestekoa da gure hirian erabilera turistikoko ehunka etxebizitza legeztatzeko propio sortu zen araudi liberalizatzailea berriz begiratzea; kontuan hartuta, besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2020ko irailaren 22an eman zuen epaiaren edukia, hark esaten baitu epe luzeko alokairuko etxebizitza gutxi izatearen kontrako borroka interes orokorreko arrazoi larria dela, arau batzuk hartzeko bidea ematen duena, etxebizitza eskuratzeko baldintzak zailtzeari eta higiezinen merkatuetan tentsioa handitzeari erantzun ahal izateko.

Alegia, hirigintza erabilerak banatzeko aurreikuspen egokia jaso behar duela hirigintza plangintzak, erabilera askotariko bat lortzearen aldeko apustua egin behar dugula, bizitegiz bestelako jarduera jakin batzuk hiriko bizitegi eremu batzuetan pilatzea saihestearen aldekoa... Horretarako,

y para una de 90 m² un precio medio de 495.000 euros.

Las políticas municipales adoptadas en los últimos seis años, están provocando que barrios como Centro y Gros se unan al de Alde Zaharra en un proceso de transformación constante, convirtiéndolas en zonas temáticas dirigidas al turismo mediante la proliferación de licencias de hoteles, albergues turísticos, apartamentos turísticos o pisos de uso turístico. No resulta extraño que se esté produciendo perdida de población en los citados barrios, a la par que una drástica reducción de las viviendas en régimen de alquiler residencial y un incremento del precio inasumble para sus moradores.

Y es que, una vez superados los debates iniciales sobre la legalidad de la ordenanza de pisos de uso turístico, invalidada por los tribunales, se hace también imperioso revisar la normativa liberalizadora creada “ad hoc” para permitir la legalización de cientos de pisos de uso turístico en nuestra ciudad; todo ello, teniendo en cuenta, entre otras, el contenido de la Sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 22 de septiembre de 2020 que resuelve que la lucha contra la escasez de viviendas destinadas al alquiler, de larga duración, constituye una razón imperiosa de interés general que justifica la adopción de determinadas normativas; todo ello, con el objetivo de dar respuesta al deterioro de condiciones de acceso a la vivienda y al aumento de las tensiones en los mercados inmobiliarios.

Es decir, el planeamiento debe contemplar una previsión adecuada de distribución de usos urbanísticos, debemos apostar por lograr una mixtura de usos, por evitar la concentración de determinadas actividades no residenciales en distintas zonas residenciales de la ciudad... Para ello, es necesario establecer ratios que impidan

ratio batzuk jarri behar dira, kontzentrazio hori galaraziko dutenak; neurgailu batzuk, horietara bideratutako azalera kuantifikatuko dutenak; eremu batzuk saturatutzat jo, eta bizitegi-eraikinak hirugarren sektoreko eraikin bihurtu ahal izateko, interes publikoa dela iruditu behar zaio Udalbatzari.

Etxebizitza arazoaren konplexutasunak esku-hartze erabat transbertsala eskatzen du, zeren administrazio baten baino gehiagoren eskumenei eragiten die eta guztiek batera jardun behar dute den egoera larria arintzeko. Gainditu egin behar ditugu etxebizitza publikoaren politika etxebizitza babestuak eraikitzera mugatzen duten formula horiek.

Hain zuzen ere, baliabide gutxiago izateak eskatzen du gaiari erasotzea, ez bakarrik etxebizitza berriak eraikitze aldetik, baizik eta baita birgaitzearen aldetik, etxebizitza hutsak mobilizatzearen aldetik, lurraldearen plangintza eta antolamendu egokiaren aldetik, prezioak kontrolatzearen aldetik, bizitokitarako etxeak erabilera turistikoko etxebizitza bihurtzea mugatze aldetik, bizitokitarako etxeak hotel bihurtzea mugatze aldetik eta abarretatik.

Beharrezkoa da hiria eremu tentsionatu definitzea; hau da, etxebizitzaren prezioak bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonen diru-sarreren % 30 gainditzen duen eremu izatea.

Ezinbestekoa da Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean jasotako etxebizitza hutsen definizioa betetzen duten etxebizitza guztien azterketa eguneratua egitea. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza Hutsen Erregistroa sortzeko izan duen atzerapenari ez diogu erantsi behar Donostiako Udalak berak landa-lanik ez egitea han jasotako neurriren baten

esa concentración, medidores que cuantifiquen la superficie destinada a las mismas, declaración de zonas saturadas y que la conversión de un edificio residencial a terciario exija la apreciación de interés público por parte del Ayuntamiento Pleno.

La complejidad del problema de la vivienda exige una intervención netamente transversal, afecta a las competencias de distintas administraciones y todas ellas deben trabajar en sintonía para poder paliar la grave situación generada. Debemos superar aquellas fórmulas que reducen la política en materia de vivienda pública únicamente a la construcción de viviendas protegidas.

Efectivamente la limitación de los recursos exige que el tema se ataque, no sólo desde el punto de vista de la construcción de viviendas nuevas, también desde la rehabilitación, de la movilización de viviendas vacías, de una adecuada planificación y ordenación del territorio, desde un control de los precios, limitando la transformación de viviendas residenciales en pisos de uso turístico, limitando la transformación de edificios residenciales en hoteles...

Se hace preciso definir a la ciudad como zona tensionada; es decir, que el precio de la vivienda supera el 30% de los ingresos de las personas que componen la unidad convivencial.

Se hace imprescindible elaborar un estudio actualizado de todas aquellas viviendas que cumplan con la definición de viviendas vacías que contiene la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda. Ya que, a la demora en la creación del Registro de Vivienda Vacía por parte del Gobierno Vasco, no debemos añadirle la falta del trabajo de campo que puede realizar el propio Ayuntamiento de Donostia para agilizar la

ezarpena arintzeko.

implementación de alguna de las medidas que contempla la misma.

Eta, hain zuzen ere, jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeak ere izan behar du ekin beharreko lan-ildoetako bat. Alde horretatik, gogorarazi dezagun Jenderik gabeko Etxebizitzen Erregistroa sortzeak etxebizitzak nahitaez alokatzea ere ekarriko duela.

Efectivamente, la movilización de la vivienda deshabitada debe ser también una de las líneas de trabajo a acometer. En este sentido se hace preciso recordar que la creación del referido Registro de Vivienda Deshabitada permitirá incluso imponer el alquiler forzoso de las mismas.

Horiek horrela, hauxe da EH Bilduren udal taldeak dakarren ebazpen proposamena.

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU, presenta la siguiente propuesta de resolución.

EBAZPEN PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, dagokion lege-izapidea egin ondoren, ahalik eta lasterren adieraz dezala etxebizitza-eremu tentsionatutzat hiria edo, hori izan bada, deklarazio hori egiteko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten hiriko eremuak.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, con la mayor brevedad posible y previa la tramitación legal oportuna, declare la ciudad como zona tensionada de vivienda o, en su defecto, de aquellas zonas de la ciudad que cumplan con los requisitos requeridos para poder efectuar tal declaración.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean eta lege hori garatzeko legerian jasotako definizioa betetzen duten jenderik gabeko etxebizitzen errolda idazteko edo idaztea agintzeko, Eusko Jaurlaritzak jenderik gabeko Etxebizitzen Erregistroa sortutakoan errolda horretan sartu ahal izan daitezen etxe horiek, dagozkion ondorioetarako.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a elaborar o encargar la redacción de un censo de viviendas deshabitadas que cumplan la definición contenida en la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda y legislación de desarrollo de la misma para que, una vez creado por el Gobierno Vasco el Registro de Vivienda Deshabitada, puedan incorporarse al mismo a los efectos oportunos.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzea sustatzeko, etxebizitzaren aldetik tentsioan dauden eremuetan erabilera turistikoko etxebizitzak jartzea arautzeko modukoa. Nolanahi ere, saihestu egingo da hirigintza-erabilera horiek hiriko hirigintza-eremu jakin

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a promover una modificación del Plan General de Ordenación Urbana, en orden a regular la implantación de pisos de uso turístico en las zonas declararadas como tensionadas en materia de vivienda. En cualquier caso, se evitará la concentración de dichos usos urbanísticos en determinados

batzuetan kontzentratzea.

4.- Donostiako etxebizitza arazoari heltzeko edo arazo hori arintzeko behar diren lege-aldaketak proposatzeko, etxebizitza arazoari buruzko mahai bat sortzeko egin behar diren urratsak egin ditzala eskatzen zaio Udal Gobernuari, udal-talde politiko guztiak izango diren mahaia.

5.- Era berean, batez ere "funts putreak" izenez ezagutzen diren horiek agertu zirenetik errentariak babesik gabe direnez, Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio errentariaren aholkularitza-bulegoa sustatzeko, errentarien eskubideei buruzko aholkuak emateko.

6.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio HAPOren araudia aldatzeko, eraikin baten bizitegi-erabilera hirugarren sektoreko erabilera bihurtu ahal izango bada, HAPOren aldaketa puntual bat izapidetu eta onartu behar izan dadin, eta ez Plan Berezia bakarrik.

7.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio turismo-jardueren kontzentrazio-mailari buruzko azterlan bat aurkezteko (horren barruan sartuta hotelak, aterpetxeak, apartamentu turistikoak, ostatuak, apartamentuak, erabilera turistikoko pisuak eta erabilera turistikoko logelak), hirigintza-eremu horietako bakoitzean guztira baimendutako ohe kopurua adierazita, datu horretatik abiatuta, hirigintza-eremu jakin batzuk jarduera aldetik saturatuta direla formalki adierazi ahal izateko.

Donostian, 2021eko urriaren 29an.

Reyes Carrere Zabala,
EH BILDU udal taldearen bozeramailea".

ámbitos urbanísticos de la ciudad.

4.- A fin de proponer las modificaciones legales oportunas que permitan abordar o paliar la problemática de la vivienda en Donostia, se insta al Gobierno Municipal a que dé los pasos necesarios para la creación de una mesa sobre el problema de la vivienda, con la presencia de todos los grupos políticos municipales.

5.- Del mismo modo, constatada la situación de desprotección de las personas arrendatarias, especialmente a partir de la aparición de los conocidos popularmente como “fondos buitres”, el Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a promover la oficina de asesoramiento del arrendatario, asesorándoles en sus derechos.

6.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a modificar la normativa del PGOU de forma que, para la modificación del uso residencial de un edificio a un uso terciario, se exija la tramitación y aprobación de una modificación puntual del PGOU, y no únicamente la tramitación de un Plan Especial.

7.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a presentar un estudio sobre el grado de concentración de actividades de tipo turístico -incluyendo dentro de él hoteles, albergues, apartamentos turísticos, pensiones, apartahoteles, pisos de uso turístico y habitaciones de uso turístico-, con indicación del número total de camas autorizadas en cada uno de dichos ámbitos urbanísticos para que, a partir del dato, se pueda concluir en la declaración formal de determinados ámbitos urbanísticos como ámbitos saturados de este tipo de actividades.

En Donostia, a 29 de octubre de 2021

Reyes Carrere Zabala
Portavoz del grupo municipal de EH BILDU”.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21 – (9) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21 – (9) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. PROPOSAMENAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

